

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Gure enpresa 18-30 urteko publikoarentzat bideratuta dago, adin horretako pertsonak erabilgarritasun handia emango dietelako, normalean, adin honetako pertsonak motxilak asko erabiltzen dituztelako. Adibidez klasera joateko, gimnasia joateko...

Horrez gain, klima euritsuan bizi diren pertsonentzat pentsatuta dago gehienbat, adibidez Espainako iparraldearentzako edo Europako lurralde gehienetarako. Gure produktuaren eskuragarritasunaren aurrean, ez da luxuzko produktua eta ekonomia maila ertaina duten pertsonentzat bideratuta dago.

Gure enpresa bilatzen duten erabiltzaileek bizimodu aktiboa eramaten duten pertsonak ere dira, gehien mugitzen diren pertsonak gehiago erabiltzen dituztelako motxilak.